

# Bolivar eta espainiarrak garbitzeko bidea

CUCUTA (KOLONBIA), 1813KO MAIATZAREN 14A. Venezuelako Lehen Errepublikaren gainbeheraren ondoren, Simon Bolivarrek Kanpaina Miresgarria esan zitzaion martxa abiatu zuen, Venezuela Espainiako koroatik askatzea xede. Abuztuaren 6an Bolivarren armada Caracasen sartu zenean herritarrek miresmenez, txaloz eta lorez hartu zuten garailea. Baina kanpaina hura espainiarrek bataiatu izan balute, ziurrenik beste adjektibo batzuk aukeratzeko lituzke: odoltsua, penagarria...

Kanpaina militarra abiatu aurretik, 1813ko urtarrilean, Antonio Nicolás Briceño buruzagi Venezuelarrak, aldeko beste hainbat ofizialekin batera, Venezuela askatzeko plan zuzen eta gordina diseinatu zuten: Cartagenako Hitzarmena. Hona hemen dokumentuaren pasarte batzuk:

“Bigarrena: gerra honen helburu nagusia Venezuelatik Europako espainiarren arraza madarikatua deuseztatzea denez, Kanarietako uhartetarrak barne, espainiar guztiak galarrak dute espedizio honetan parte hartzea, abertzale zintzoak iruditu arren, horietako bat bera ere ezin delako bizirik geratu, eta horretan ez delako inolako salbuespenik onartuko (...)”.

“Hirugarrena: askatutako lurraldeetako Europako espainiarren jabetzak lau zatitan banatuko dira: bata, espedizioan parte hartu duten ofizialen artean, graduaren arabera zatitan banatuta; bigarren zatia soldaduei dagokie; eta beste biak, Estatuari. Zalantzazko kasuetan, bertan dauden ofizialek gehiengo erabakiko dute auzia (...)”.

“Bederatzigarrena: ordainsaria lortu edo gradua igotzeko eskubidea izateko, nahikoa da hildako espainiarren edo kanariarren buru kopuru jakin bat aurkeztea. Hogei aurkezten dituen soldadua jarduneko banderadun izendatuko da, lotinant graduak 30 buru balio du, kapitain graduak 50...”.



**Simon Bolivarrek (1783-1830) “Venezuelatik Europako espainiarren arraza madarikatua deuseztatzeko” dekretua promulgatu zuen, 1813ko ekainean.**

Aldarria dekretu bihurtu zuen Simon Bolivarrek 1813ko ekainaren 15ean, kanpaina hasi eta hilabetera. Eta berehala betearazi zuen. Kanpainaren bidean “europar eta kanariar guztiak fusilatu zituzten, ia salbuespenik gabe”, Amerikako independentzia prozesuetan aditua den Justo Cuño historialari espainiarrak jaso duenez. 1814ko otsailean, espainiarrek kapitulatu zutenetik hainbat hilabete igaro arren, Juan Bautista Arismendik Caracaseko 886 preso espainiar fusilatuarazi zituen, Bolivarren aginduz. Handik egun gutxira, La Guaira ospitaleko 500dik gora gaixo espainiar gora gehitu zizkioten zerrenda beltzari.

Espainiarrak garbitzeko dekretu haren gordintasunez jakitun, Bolivarrek berak espainiarren iraganeko basakeriak erabili zituen justifikazioztat: Venezuelako lehen errepublikaren porrotean Domingo Monteverderen armadak egindako krimenak, 1810ean Quitoko independentzia ahalegina gogor zapaldu izana... Dekretua 1820ko azaroaren 26ra arte egon zen indarrean, Bolivarrek eta Pablo Morillo espainiarrak gerra arautu eta bi aldean gehiegikeriak mugatzea negoziatu zuten arte. ■

## Arrastoak

### Insulae, Antzinaroko etxe-orratzak

ARO BERRIAGOETAN BEZALA, Antzinaroko Erroman ere lurzoruaren espekulazioak eraikitza geroz eta bertikalagoa eragin zuen. Erromatarren etxeetan pentsatzean gogora datozkigunak patrizioen *domus* zabalak izan arren, erromatar gehienak *insulae* izeneko etxebizitza bloke merke eta garaietan bizi ziren, gehienbat alokairupean.

Ez dakigu, esaterako, Insulae Felicles hiriburuko etxebizitza-erakin ezagun eta garaienak zenbateko altuera zuen, baina hainbat agintarik hartutako neurri murriztaileak aintzat hartuta, 20 metro aise gainditzen zituela esan daiteke. Izan ere, Augusto, Trajano eta Adriano enperadoreek eraikinen garaiera 21, 20 eta 18 metrora mugatu zuten, hurrenez hurren, gehienetan egurrezko egiturak zituzten blokeek oso erraz su hartzen baitzuten.

Tertuliano idazle kartagotarraren hitzetan: “Unibertsoa alokairuan dagoen etxe erraldoia da, zerurantz hainbeste solairu dituena, ezen erromatarren jainkoa Insulae Feliclesen bizi dela esaten baita”. ■



**Antzinaroko Erromako maketaren zati bat, Erdian Insulae Felicles eraikina duela.**